# durango helburu

## Durangoren etorkizuna elkarrekin diseinatzen

## Diseñando juntos el futuro de Durango











# Durango helburu



# Índice


**Saludo** ........ 6

**1. ¿Qué es DURANGO HELBURU?** ........ 8

**2. El proceso 2017-2018** ........ 10

**3. Propuestas de actuación** ........ 12

**4. Gobernanza** ........ 14-21
Transparencia, accesibilidad y participación ........ 16
Visión comarcal ........ 18
Alianzas estratégicas ........ 20

**5. Actividad económica para el empleo de calidad** ........ 22-33
Promoción económico-industrial [Proyecto estratégico] ........ 24
Dinamización del comercio de proximidad ........ 26
Desarrollo turístico ........ 28
Desarrollo sostenible ........ 30
Formación superior [Proyecto estratégico] ........ 32

**6. Calidad de vida** ........ 34-51
Personas Mayores ........ 36
Diversidad ........ 38
Gazteok ere ........ 40
Durangon euskaraz ........ 42
Dinamismo asociativo ........ 42
Dinamismo cultural ........ 44
Práctica deportiva ........ 46
Movilidad sostenible [Proyecto estratégico] ........ 48

**7. Espacios de futuro** ........ 52-61
Espacios de encuentro ........ 54
Remodelación de la plaza del mercado [Proyecto estratégico] ........ 56
Urbanismo sostenible ........ 58
El espacio del ferrocarril [Proyecto estratégico] ........ 60




# Aurkibidea


**Agurra** ........ 7

**1. Zer da DURANGO HELBURU?** ........ 9

**2. 2017-2018 prozesua** ........ 11

**3. Jarduteko proposamenak** ........ 13

**4. Gobernantza** ........ 14-21
Gardentasuna, irisgarritasuna eta parte-hartzea ........ 17
Eskualde-ikuspegia ........ 19
Aliantza estrategikoak ........ 21

**5. Kalitatezko enplegurako jarduera ekonomikoa** ........ 22-33
Sustapen ekonomiko-industriala [Proiektu estrategikoa] ........ 25
Hurbileko merkataritza dinamizatzea ........ 27
Turismo-garapena ........ 29
Garapen jasangarria ........ 31
Goi-mailako prestakuntza [Proiektu estrategikoa] ........ 33

**6. Bizi-kalitatea** ........ 34-51
Adinekoak ........ 37
Aniztasuna ........ 39
Gazteok ere ........ 41
Durangon euskaraz ........ 43
Elkartzeko dinamismoa ........ 43
Kultura-dinamismoa ........ 45
Kirol-praktika ........ 47
Mugikortasun jasangarria [Proiektu estrategikoa] ........ 49

**7. Etorkizuneko espazioak** ........ 52-61
Topaguneak ........ 55
Merkatu plazako birmoldaketa [Proiektu estrategikoa] ........ 57
Hirigintza jasangarria ........ 59
Trenbidearen espazioa [Proiektu estrategikoa] ........ 61

# Saludo

La política, al igual que la sociedad, está cambiando y esto nos lleva a tomar nuevos caminos, a reinventarnos y a modernizarnos, acercándonos más a las personas y escuchando a todas las y los durangarras para conocer y comprender mejor sus necesidades.

Como organización política que quiere servir a su pueblo, desde EAJ-PNV queremos escuchar más, para responder más y mejor. Durango nos importa a todas y todos. Hau da gure herria eta honexegaitik arduratzen gaitu bere egunean egunekoak eta, nola ez, etorkizunak.

Ez gara hutsetik abiatzen. Azken 40 urteetan egindakoa amestu ere ezin genduan egin laurogehigarren hamarkadan; baina batzuek, zuetariko batzuk tarteko, amestu eta egin egin izan dogu. Lan asko eta ondo egin da azkeneko 40 urteetan herri hau aurrera ataratzeko eta garatzeko.

Orain, barriro ere, etorkizuna irudikatu eta aurrera egiteko gogotsu gatoz. Badaukagu non ibili eta zertan jardun. No queremos caer en la autocomplacencia. Queremos esbozar el futuro y ponernos manos a la obra, a construirlo, juntos, con vosotros y vosotras, y con todos y todas las durangarras. Debemos seguir diseñando Durango para dar respuestas, día a día, a los problemas y necesidades que todas y todos tenemos.

El documento que tienes entre tus manos es fruto de un trabajo participativo, que durante los últimos meses hemos desarrollado con más de 120 durangarras, que han puesto su tiempo, su conocimiento y su experiencia al servicio del Durango de 2030. Para nosotras y nosotros, esto significa construcción –en positivo–, significa proyección –de futuro– y significa trabajo colectivo –entre personas–. Son tres elementos indispensables en nuestra forma de hacer las cosas, en nuestro estilo.

Por ello, hemos escuchado vuestras propuestas, las hemos recogido, las hemos valorado, buena parte de ellas estarán en el programa electoral con el que nos presentaremos a las próximas elecciones municipales de mayo del 2019, y en todo caso, todas ellas servirán para nuestra acción de gobierno. Lo queremos hacer así, porque tenemos un compromiso con el Durango que habéis dibujado con vuestras propuestas y un reconocimiento al trabajo que se ha desarrollado. Así, incluir algunas en nuestro programa electoral y, otras, en el plan de trabajo del equipo de gobierno próximo es el primer paso para que puedan llegar a ser una realidad a corto, medio y largo plazo, en función del alcance de las mismas.

DURANGO HELBURU seguirá su curso. Sin embargo, creíamos conveniente ordenar y organizar las ideas y propuestas que en esta fase de trabajo hemos sido capaces de construir colectivamente para proyectar el Durango de 2030. Este documento quiere ser un reflejo de ellas. Somos conscientes de que la dinámica desarrollada ha estado llena de matices y sensaciones que este documento no puede contener, por ello, DURANGO HELBURU seguirá siendo cauce de escucha y construcción, donde vuestras propuestas siguen siendo bienvenidas.

Durango, octubre de 2018.

Junta Municipal de Durango



# Agurra

Politika, gizartea bezalaxe, aldatzen ari da, eta horrek bide berriak jorratzera garamatza, gure burua berrasmatu eta modernizatzera, pertsonengana gehiago hurbilduz eta durangar guztiei entzunez, haien premiak ezagutzeko eta hobeto ulertzeko.

Gure herriaren zerbitzuan gauden erakunde politiko bat garen heinean, EAJ-PNVko kideok gehiago entzun nahi dugu, gehiago eta hobeto erantzuteko. Durango guztion ardura delako. Hau da gure herria eta honexegaitik arduratzen gaitu bere egunean egunekoak eta, nola ez, etorkizunak.

Ez gara hutsetik abiatzen. Azken 40 urteetan egindakoa amestu ere ezin genduan egin laurogeigarren hamarkadan; baina batzuek, zuetariko batzuk tarteko, amestu eta egin egin izan dogu. Lan asko eta ondo egin da azkeneko 40 urteetan herri hau aurrera ataratzeko eta garatzeko.

Orain, barriro ere, etorkizuna irudikatu eta aurrera egiteko gogotsu gatoz. Badaukagu non ibili eta zertan jardun. Ez dugu autokonplazentzian erori nahi. Etorkizuna zirriborratu nahi dugu eta lanean jarri, etorkizuna denon artean eraiki, elkarrekin, zuekin, durangar guztiekin. Durango diseinatzen jarraitu behar dugu, egunero-egunero, guztiok dauzkagun arazo eta premiei erantzuteko.

Esku artean daukazun dokumentua lan partizipatibo baten emaitza da, azken hilabeteetan 120 durangar baino gehiagorekin garatu duguna, guztiek ere beren denbora, jakintza eta esperientzia 2030eko Durangoren zerbitzuan jarri dutelarik. Guretzat horrek eraikuntza positiboa, etorkizuneko proiekzioa eta pertsonen arteko lan kolektiboa esan nahi du. Eta hiru elementu horiek ezinbestekoak dira gure gauzak egiteko moduan, gure estiloan.

Horregatik, zuen proposamenak entzun, jaso eta balioetsi ditugu. Horietako asko sartuko ditugu 2019ko maiatzeko udal-hauteskundeetarako gure hauteskunde-programan, eta guztiak ere baliagarri izango dira gure gobernu-ekintzarentzat. Hala egin nahi dugu, zuen proposamenekin itxuratu duzuen Durangoren aldeko konpromiso bat dugulako eta garatu den lanak gure esker ona merezi duelako. Hala proposamen batzuk gure hauteskunde-programan bilduz eta beste batzuk hurrengo gobernu-taldearen lan-programan txertatuz lehen urrats bat egingo dugu proposamen horiek epe laburrean, ertainean eta luzean errealitate bihurtzeko, proposamen bakoitzaren norainokoaren arabera.

DURANGO HELBURUK bere bidea jarraituko du. Alabaina, 2030eko Durango proiektatzeko lan-fase honetan guztion artean eraiki ditugun ideia eta proposamenak ordenan jartzeko eta antolatzeko une egokia zela iruditu zaigu. Dokumentu honek horien isla izan nahi du. Ondo dakigunez, ezinezkoa da garatutako dinamikan nabari diren ñabardura eta sentsazio ugariak dokumentu honetan biltzea, eta horregatik, DURANGO HELBURUK entzuteko eta eraikitzeko bide izaten jarraituko du, non zuen proposamenek ongi etorriak izaten jarraituko duten.

Durangon, 2018ko urrian.

Durangoko Uri Buru Batzarra

# 1. ¿Qué es DURANGO HELBURU?

DURANGO HELBURU es un mecanismo de participación y colaboración, directo y abierto, al alcance de todas y todos, que tiene como objetivo escuchar, recabar información, valorar y evaluar las áreas fundamentales de acción pública en Durango.

DURANGO HELBURU es una forma de contraste de la realidad local, un proceso de identificación e incorporación de las inquietudes, necesidades y valores de las distintas personas y grupos que conforman nuestro municipio para que, entre todas y todos, podamos definir estrategias y acciones que nos permitan diseñar el Durango del futuro.

Los servicios municipales se han multiplicado, la educación, la recuperación de nuestra cultura e idioma, la seguridad, la atención a nuestras personas mayores y a las y los más necesitados, las infraestructuras, los servicios públicos, la planificación y regeneración urbana y medioambiental , todas ellas, son cuestiones que hace 40 años apenas podíamos imaginar. Han sido 40 años de trabajo, de actuaciones concretas, con un mismo objetivo: mejorar la calidad de vida de las y los durangarras.

Con DURANGO HELBURU queremos construir el Durango del 2030, que debe partir de una proyección colectiva del mismo, y una construcción constante, mediante materializaciones concretas, día a día. Queremos escuchar. Queremos contrastar. Queremos concertar.

Y, para ello, resulta del todo necesario contar con la participación de personas como vosotras y vosotros, personas que aportan ideas, conocimiento y experiencia, contribuyendo con ello a mejorar nuestro pueblo. La dinámica se articula en torno a sesiones de trabajo interactivas, participativas, cercanas, constructivas y enriquecedoras.

Estamos construyendo Durango. El Durango de hoy y, también, el de mañana. Entre todas y todos, y para todas y todos los durangarras. Os necesitamos, a cada una de las personas que habéis participado, porque todas y todos tenemos un papel que jugar en el futuro de Durango y queremos recorrer este camino juntos. En realidad, sois agentes clave en el desarrollo del Durango de hoy, y de 2030. Estamos profundamente convencidos de que la participación cívica en el diseño del Durango 2030, nos hace a todas y todos estar más cerca de su materialización.





# 1. Zer da DURANGO HELBURU?

DURANGO HELBURU parte hartzeko eta lankidetzarako mekanismo bat da, zuzena eta irekia, guztion eskura dagoena, eta entzuteko, informazioa biltzeko eta Durangoko ekintza publikoaren funtsezko alorrak baloratu eta ebaluatzeko helburua duena.

DURANGO HELBURU udal-errealitatea kontrastatzeko modu bat da, gure udalerria osatzen duten pertsona eta talde guztien kezka, premia eta balioak identifikatu eta biltzeko prozesu bat, guztion artean, etorkizuneko Durango diseinatzeko estrategia eta ekintzak definitzeko aukera emango diguna.

Udal-zerbitzuak biderkatu dira: hezkuntza, gure kultura eta hizkuntza berreskuratzea, segurtasuna, gure adinekoentzako eta premia handiena dutenentzako arreta, azpiegiturak, zerbitzu publikoak, hiriaren eta ingurumenaren plangintza eta berroneratzea, eta abar, guztiak ere, orain 40 urte ia imajinatu ezin genitzakeen gauzak. 40 urte lanean eman ditugu, jardun zehatzak eginez helburu bakar bat jomugan: durangarren bizi-kalitatea hobetzea.

DURANGO HELBURUREKIN 2030eko Durango eraiki nahi dugu, hiriaren proiekzio kolektibo batetik abiatuta etengabe eraiki behar duguna, egunetik egunera, gauza zehatzak eginez. Entzun nahi dugu. Kontrastatu nahi dugu. Adostu nahi dugu.

Eta horretarako, zuen parte-hartzea behar-beharrezkoa da, ideiak, jakintza eta esperientzia dakartzazuen pertsonak zaretelako, eta horrekin batera, gure herria hobetzen laguntzen duzuelako. Parte hartzeko lan-saio elkarreragile hurbil, konstruktibo eta aberasgarrien inguruan antolatutako dinamika da.

Durango eraikitzen ari gara. Gaurko Durango, eta baita biharkoa ere. Guztion artean, eta durangar guztiontzat. Parte hartu duzuen guztiak behar zaituztegu, guztiok ere zeregina badugulako Durangoren etorkizunean, eta bide hori elkarrekin egin nahi dugulako. Izan ere, funtsezko eragileak zarete egungo eta 2030eko Durangoren garapenean. 2030eko Durangoren diseinuan herritarrek nola parte hartu duten ikusirik, uste osoa dugu gure helburua lortzetik hurbilago gaudela.



## 2. El proceso 2017-2018

DURANGO HELBURU comenzó su camino en diciembre de 2017. En los meses que median desde entonces, más de 120 personas que viven o trabajan en Durango han sido partícipes y artífices de este proyecto. Son mujeres y hombres, de diferente edad y perfil, a las que les ha unido un objetivo común: compartir ideas y conocimiento para mejorar el municipio de Durango.

Este trabajo se ha organizado en tres áreas de interés. Una primera área -Ingurua- liderada por Mireia Elkoroiribe, una segunda -Gizartea- guiada por Sergio Murillo, y una tercera -Nortasuna- bajo la batuta de Sonia Oceja.

Estos grupos de trabajo comenzaron realizando un estudio y diagnóstico de la situación actual del municipio, para, inmediatamente después, construir una imagen compartida del futuro Durango. Las líneas de trabajo, estrategias y acciones para hacerlo realidad han sido el trabajo que les ha seguido.

Más de 14 reuniones formales, infinidad de contactos informales, intercambio de documentos, propuestas por correo electrónico... han dado lugar a las 120 propuestas de actuación que hemos obtenido. Estas son, de alguna manera, las que hemos recogido en este documento.



## 2. 2017-2018 prozesua

DURANGO HELBURUREN bidea 2017ko abenduan hasi zen. .Harrez geroztik, Durangon bizi edo lan egiten duten 120 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute proiektu honetan. Hainbat adin eta profiletako gizon-emakumeak dira, helburu bat partekatu dutenak: ideiak eta jakintza partekatzea Durangoko udalerria hobetzeko.

Lan hori hiru interes-eremutan antolatu da. Lehen eremu bat —Ingurua— Mireia Elkoroiribe buru izan duena; bigarrena —Gizartea—, Sergio Murillok gidatua; eta hirugarren bat —Nortasuna— Sonia Ocejaren zuzendaritzapean.

Lantalde horiek, lehenik eta behin, udalerriko egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa egin zuten, eta, jarraian, etorkizuneko Durangoren irudi partekatu bat eraikitzeari ekin zioten. Ondoren, helburu hori errealitate bihurtzeko lan-ildo, estrategia eta ekintzez arduratu dira.

14 bilera formaletik gora, hainbat eta hainbat harreman informal, dokumentu-trukea, posta elektroniko bidezko proposamenak... eta azkenean, jarduteko 120 proposamen jaso ditugu guztira. Era batera edo bestera, dokumentu honetan jaso ditugunak.



# 3. Propuestas de actuación

Las propuestas de actuación han ido surgiendo en las sesiones de forma diversa. Diversa por las dinámicas desarrolladas en cada una de las tres áreas temáticas en que se ha articulado el proceso (Ingurua, Gizartea, Nortasuna), y diversa por las personas que se han implicado en esta fase del proceso DURANGO HELBURU.

Desde el primer día en que lanzamos el proceso y asignamos contenidos a cada gran área temática, éramos conscientes de que muchas cuestiones se entrelazarían. De hecho, muchas de las personas que se han implicado en el proceso, por su profesión o vocación, podían haber participado de otra o, incluso, de varias áreas temáticas. Sin confesarlo, pero de forma consciente, ellas, ellos han dado un mejor reflejo del carácter poliédrico de los retos abordados, incorporando su perspectiva, personal e intransferible, a cada conversación, a cada debate, a cada propuesta.

En este documento, hemos organizado las 120 propuestas de actuación, en 4 grandes bloques, de forma que quien se acerque al mismo, pueda encontrar un documento organizado por áreas temáticas, que invite a la lectura a quien ha estado implicado en el proceso, y a quien se acerca, como observador, para conocer sus resultados. Este proceso ha necesitado de cierta reformulación y fusión de propuestas reiteradas en diferentes grupos. Todas están recogidas en este documento, y su implementación será objeto de análisis de viabilidad.



# 3. Jarduteko proposamenak

Jarduteko proposamenak saioetan sortzen joan dira, askotariko modutan. Askotarikoa izan da prozesua antolatzeko hiru gai tematikoetan (Ingurua, Gizartea, Nortasuna) garatu diren dinamikei dagokienez, eta askotarikoa, halaber, DURANGO HELBURU prozesuaren fase horretan inplikatu diren pertsonei dagokienez.

Prozesua abiarazi eta eremu tematiko handi bakoitzari edukiak esleitu genizkionez geroztik bagenekien gai asko korapilatuko zirela. Izan ere, prozesuan inplikatu diren pertsonetako askok, beren lanbide edo bokazioarengatik, beste arlo tematiko batean edo batzuetan ere parte hartu dute. Aitortu gabe baina kontzienteki, haiek eman dute heldutako erronken izaera poliedrikoaren isla hobe bat, beren ikuspegi pertsonal eta besterenezina elkarrizketa bakoitzera, eztabaida bakoitzera, proposamen bakoitzera ekarriz.

Dokumentu honetan, jarduteko 110 proposamenak antolatu ditugu 4 bloke handitan, bertara hurbiltzen denak arlo tematikoen arabera antolatutako dokumentu bat aurki dezan, prozesuan inplikatuta egon direnei eta emaitzen berri izateko hurbilduko diren begiratzaileei irakurtzeko gogoa emango diena. Prozesu horrek nolabaiteko birformulazioa behar izan du, baita taldeetan errepikatutako proposamenak bateratzea ere. Guztiak ere dokumentu honetan bilduta daude, eta bideragarritasun-azterketa bat egin beharko da abiaraziko diren edo ez ikusteko.






# Gobernantza
# Gobernanza

# 4. Gobernanza

La forma en que se dirigen los asuntos públicos, entendidos éstos como el gobierno de lo común, lo compartido, viene demostrándose clave en el desarrollo de municipios, territorios y países. Así es también en el caso de Durango. Se han subrayado los siguientes elementos para la buena gobernanza de municipio:

1. Orientación de todas las políticas sectoriales (sean éstas de empleo, educación, servicios sociales ) hacia la consecución de un municipio amable, dinámico y con calidad de vida, de forma que la persona adquiera la centralidad en el desarrollo de todas ellas.
2. Liderazgo institucional y comarcal para desarrollar los planes y actuaciones clave para el municipio, activando, dinamizando, participando e, incluso, co-liderando foros y alianzas con agentes cívicos, sociales, empresariales y/o institucionales.
3. Promover el sentimiento de pertenencia e implicación en un proyecto compartido, el Durango de 2030, para que tanto las duranguesas y durangueses de toda la vida, como los que han venido más recientemente a vivir a Durango, se identifiquen con Durango, como lugar excelente para vivir y trabajar.

**Transparencia, accesibilidad y participación**

La transparencia, la rendición de cuentas y el diálogo continuado son elementos imprescindibles del buen gobierno institucional, que impulsan a la participación de duranguesas y durangueses en el proyecto común que es Durango.

4. Apertura, transparencia y cercanía en la gestión municipal:
    a. Diseño y creación de una nueva página web, que permita ofrecer información de calidad, y mejorar la transparencia y la comunicación, ofreciendo un mejor acceso a la información municipal.
    b. Establecimiento de reuniones informativas periódicas abiertas a la ciudadanía, con posibilidad de realizar preguntas al equipo de gobierno.
    c. Elaboración, aprobación y publicación de cartas de servicios municipales, que incluyan indicadores concretos de evaluación de los mismos.
    d. Avance del modelo de policía municipal de cercanía, incrementando su presencia en la calle
5. Incorporación de la participación ciudadana en la propuesta y desarrollo de proyectos estratégicos de Durango 2030:
    a. Impulso de mecanismos de participación ciudadana en las diferentes fases de los proyectos.
    b. Incorporación de agentes/personas expertas en las diferentes fases de los proyectos para consulta del equipo de gobierno o asesoramiento al mismo.



# 4. Gobernantza

Gai publikoak zuzentzeko modua funtsezkoa izaten ari da udalerri, lurralde eta herrialdeen garapenean, betiere gai publikoak guztiona denaren eta partekatuaren gobernua direla aintzat hartuta. Durangoren kasuan ere hala da. Udalerria ongi gobernatzeko honako elementu hauek azpimarratu dira:

1. Sektore-politika guztiak (enplegukoak, hezkuntzakoak, gizarte-zerbitzuetakoak, etab.) bizi-kalitatea duen udalerri atsegin eta dinamiko baterantz bideratzea, horietan guztietan ardatza pertsona izan dadin.
2. Lidergoa erakunde eta eskualdeetan, udalerriarentzat funtsezkoak diren plan eta jardunak garatzeko, eragile zibiko, sozial, enpresarial eta/edo instituzionalekiko foro eta aliantzak aktibatuz, dinamizatuz eta haietan parte hartuz, baita haien buruan jardunez ere, beste eragile batzuekin batera.
3. 2030eko Durangoren proiektu partekatuarekiko kidetasun- eta inplikazio-sentimendua sustatzea, betiko durangarrek zein Durangora bizitzera etorri berri direnek Durangorekin bat egin dezaten, bizitzeko eta lan egiteko toki bikaina den heinean.

**Gardentasuna, irisgarritasuna eta parte-hartzea**

Gardentasuna, kontu-ematea eta etengabeko elkarrizketa ezinbestekoak dira erakunde-gobernu ona bermatzeko. Horiek guztiek sustatzen dute durangarrek Durangoren proiektu komunean parte har dezatela.

4. Irekitasuna, gardentasuna eta hurbiltasuna udal-kudeaketan:
    a. Webgune berri bat diseinatu eta sortzea, kalitatezko informazioa eskaini eta gardentasuna eta komunikazioa hobetu ahal izateko, udal-informazioa eskuragarriago jarriz.
    b. Herritarrentzat irekitako aldian behingo informazio-bilerak ezartzea, herritarrei gobernu-taldeari galderak egiteko aukera emanez.
    c. Udal-zerbitzuetako agiriak egin, onartu eta argitaratzea, haiek ebaluatzeko adierazle zehatzak barne.
    d. Hurbileko udaltzaingo-eredua aurreratzea, kalean udaltzainen presentzia handiagotuz.
5. Herritarrei 2030eko Durangoren proiektu estrategikoen proposamen eta garapenean parte hartzeko aukera ematea:
    a. Proiektuen fase guztietan herritarren parte-hartzerako mekanismoak bultzatzea.
    b. Proiektuen fase guztietan eragileak/adituak txertatzea, gobernu-taldearen kontsultarako edo hari aholku emateko.



6. Accesibilidad de la información, especialmente para colectivos específicos, y simplificación de trámites administrativos:

   a. Adaptación de la información administrativa en materiales de lectura y comprensión fácil, lengua de signos, braille , para que todas las personas, sin distinción, tengan acceso a la misma.

   b. Sensibilización y formación específica al personal al servicio de las administraciones públicas con oficinas en Durango y de otros servicios de interés general de la ciudadanía.

   c. Mejora de los cauces de información e interrelación con la ciudadanía, especialmente de los cauces presenciales.

   d. Incorporación de nuevos cauces de comunicación mediante las nuevas tecnologías.

7. Avance de la tramitación electrónica, para poder ofrecer más servicios on-line.

**Visión comarcal**

La calidad de vida de las personas que viven y trabajan en Durango, está íntimamente ligada a la prosperidad de Durangaldea. Por ello, en muchos momentos y áreas de trabajo propuestas, ha surgido la necesidad de hacer referencia a municipios colindantes y, frecuentemente, a todo Durangaldea. Este documento está jalonado de proyectos con visión supramunicipal, si bien aquí destacamos algunos enfoques clave de gobernanza comarcal:

8. Liderazgo comarcal, apoyando y complementando las estrategias de los municipios de la comarca.

9. Desarrollo de alianzas con otros municipios de Durangaldea para atraer proyectos que de forma aislada no se podrían conseguir, entendiendo que las fortalezas de unos (como disponibilidad de suelo, o contar con un núcleo urbano de servicios) completan los puntos débiles de otros, y viceversa.

10. Potenciación de actividades mancomunadas entre municipios de Durangaldea, para generar sinergias y proyectos de interés para Durango y Durangaldea.

11. Impulso a infraestructuras clave para Durangaldea, valorando su retorno en todos los municipios, más allá del impacto en el municipio donde se ubican.



6. Informazioaren eskuragarritasuna, bereziki kolektibo espezifikoentzat, eta administrazio-izapideen sinplifikazioa:

   a. Administrazio-informazioa erraz irakurri eta ulertzeko materialetara, zeinu-hizkuntzara edota braillera egokitzea, pertsona guzti-guztiek, bereizketarik gabe, informazio hori eskuratzeko aukera izan dezaten.

   b. Durangoko bulegoetan administrazio publikoen zerbitzuan eta herritarrentzako interes orokorreko beste zerbitzu batzuetan diharduten langileentzako sentsibilizazioa eta prestakuntza espezifikoa.

   c. Herritarrekiko informazio- eta harreman-bideak hobetzea, bide presentzialak bereziki.

   d. Teknologia berrien bitartez komunikabide berriak txertatzea.

7. Izapidetze elektronikoan aurrera egitea, on-line zerbitzu gehiago eskaini ahal izateko.

**Eskualde-ikuspegia**

Durangon bizi eta lan egiten dutenen bizi kalitatea Durangaldeko oparotasunarekin estu lotuta dago. Horregatik, proposatutako une eta lan-eremu askotan, aldameneko udalerrien aipamena egin behar izan dugu, eta, batzuetan, Durangalde osoaren aipamena. Udalez gaindiko ikuspegia duten proiektuez beterik dator dokumentu hau, baina hemen eskualde-gobernantzarako funtsezko ikuspegi batzuk nabarmenduko ditugu:

8. Eskualde-lidergoa, eskualdeko udalerrien estrategiak bultzatuz eta osatuz.

9. Durangaldeko beste udalerri batzuekiko aliantzak garatzea, bakarka erakarri ezin izango liratekeen proiektuak erakartzeko, batzuen indarrak (lurzoruaren eskuragarritasuna edo zerbitzuetarako hirigune bat edukitzea) beste batzuen ahuleziak osatzeko baliagarri direla —eta alderantziz— ulertuz .

10. Durangaldeko udalerrien arteko jarduera mankomunatuak indartzea, Durangorentzat eta Durangaldearentzat interesgarri diren sinergia eta proiektuak sortzeko.

11. Durangalderako funtsezkoak diren azpiegiturak bultzatzea, udalerri guztietarako duten itzulkina balioetsiz, kokatuta dauden udalerrian duten inpaktutik haratago.





**Alianzas estratégicas**

Las administraciones, las empresas, las entidades sociales, los países, los territorios o los municipios, en estos albores del siglo XXI, sabemos que los retos a los que nos enfrentamos son complejos, y están influidos por multitud de factores y agentes fuera de los límites de nuestras organizaciones. Debemos colaborar entre nosotras y nosotros y aspirar a conectarnos con las organizaciones que mejor lo hacen en el mundo. Establecer una cultura de la colaboración inter-organizacional, es clave para alcanzar mayores cotas de bienestar.

12. Puesta en marcha de espacios y trabajos de colaboración con empresas que promueven o quieran promover la investigación y el desarrollo.
    a. Identificación y potenciación de organizaciones de excelencia en el municipio.
    b. Colaboración con los centros intensivos en I+D+i del municipio.
    c. Acercamiento a instituciones del Sistema Vasco de Ciencia y Tecnología, intensivas en conocimiento, como universidades o centros tecnológicos.
13. Establecimiento de marcos de colaboración interinstitucional para atraer una mayor oferta de servicios públicos al municipio.



**Aliantza estrategikoak**

XXI. mendearen hasiera honetan, administrazioek, enpresek, gizarte-erakundeek, herrialdeek, lurraldeek edo udalerriek ondo dakigu aurrez aurre dauzkagun erronkak korapilatsuak direla, eta gure erakundeetako mugetatik kanpo dauden faktore eta eragile asko eta askoren eragina dutela. Elkarri lagundu behar diogu, munduan ondoen diharduten erakundeekin bat egiteko asmoak gidatuta. Erakunde arteko lankidetzarako kultura bat ezartzea funtsezkoa da ongizate-maila handiagoak lortzeko.

12. Ikerketa eta garapena sustatzen edo sustatu nahi duten enpresekiko lankidetza eta espazioak martxan jartzea.
    a. Udalerrian bikaintasuna lortu duten erakundeak identifikatu eta indartzea.
    b. Udalerriko I+G+Bko zentro intentsiboekiko lankidetza.
    c. Jakintza intentsiboko Zientzia eta Teknologiako Euskal Sistemaren erakundeetara hurbiltzea, unibertsitateetara edo zentro teknologikoetara adibidez.
13. Erakundearteko lankidetzarako esparruak ezartzea, udalerrira zerbitzu publikoen eskaintza zabalago bat erakartzeko.





# Kalitatezko enplegurako jarduera ekonomikoa

# Actividad económica para el empleo de calidad

# 5. Actividad económica para el empleo de calidad

Los datos macroeconómicos ofrecen una buena imagen de Durango, en términos comparados de desempleo o renta per cápita. Sin embargo, las cifras no nos ciegan para advertir que sigue existiendo la necesidad de extender a todas y cada una de las personas, mayores niveles de bienestar y acceso al empleo de calidad. Sólo un dinamismo socio-económico permanente permitirá avanzar en el empleo de calidad ahora y en el futuro.

**Promoción económico-industrial** **[Proyecto estratégico]**

La actividad económica, en términos generales, se desarrolla por la iniciativa privada. Sin embargo, el contexto ha demostrado ser un factor clave para su atracción. Durango quiere tener una oferta atractiva para quien esté valorando emprender o invertir. Esa promoción ha de ser consciente y proactiva. Estas son algunas de las propuestas que han surgido en este proceso.

14. Promover la colaboración público-privada para dinamizar y apoyar la estrategia del municipio en materia económica.
15. Desarrollo de una oferta y plan de trabajo para atraer inversiones al municipio, que generen actividad económica y empleo.
16. Creación de un servicio accesible de información, asesoramiento y formación para facilitar el emprendimiento y la implantación de nuevas empresas.
17. Impulso a un centro de incubación de empresas para Durangaldea.
18. Focalizar los esfuerzos en ofrecer Durango a las empresas de alto valor añadido (ingenierías, finanzas, diseño, servicios profesionales ) que trabajan para las industrias de la comarca.
19. Apoyo a la digitalización de las empresas y atracción de empresas de servicios avanzados para la industria 4.0 o digital.
20. Desarrollo de un plan estratégico, que incluya urbanización de los terrenos industriales de Eguzkitza que permita disponer de espacio para la implantación de (nuevas) empresas en Durango.
21. Establecimiento de una agenda y plan de trabajo con las industrias ubicadas en el entramado urbano de Durango, para evitar su fuga o cierre, y promover traslados a zonas industriales, actuales o nuevas, del municipio, o en su caso, la comarca.





# 5. Kalitatezko enplegurako jarduera ekonomikoa

Datu makroekonomikoek Durangoren irudi ona eskaintzen dute, langabeziaren edo biztanleko errentaren termino konparatuetan. Nolanahi ere, kopuruek ez gaituzte itsutu behar, eta ez dugu ahaztu behar oraindik ere beharrezkoa dela pertsona guztiei eta bakoitzari ongizate-maila hobeak eta kalitatezko enplegua lortzeko aukera bermatzea. Dinamismo sozioekonomiko iraunkor batek soilik ahalbidetuko du orain eta etorkizunean kalitatezko enpleguan aurrera egitea.

**Sustapen ekonomiko-industriala** **[Proiektu estrategikoa]**

Oro har, jarduera ekonomikoa ekimen pribatuaren eskutik garatzen da. Alabaina, testuingurua ere funtsezkoa izan da hura erakartzeko . Durangok eskaintza erakargarria izan nahi du ekiteko edo inbertitzeko asmotan dabilen ororentzat. Sustapen horrek kontzientea eta proaktiboa izan behar du. Hona hemen prozesu horretan sortu diren proposamenetako batzuk.

14. Lankidetza publiko-pribatua sustatzea, udalerriko estrategia ekonomikoa dinamizatu eta bultzatzeko.
15. Lan-eskaintza eta lan-plan bat garatzea udalerrira inbertsioak erakartzeko, jarduera ekonomikoa eta enplegua sor dezaten.
16. Informazio, aholkularitza eta prestakuntzarako zerbitzu bat sortzea, enpresa berrien ekintzailetza eta ezarpena errazteko.
17. Durangalderako enpresa-inkubazioko zentro bat bultzatzea.
18. Ahaleginak batzea, eskualdeko industrientzat diharduten balio erantsi handiko enpresei (ingeniaritzak, finantzak, diseinua, zerbitzu profesionalak, etab.) Durango eskaintzeko.
19. Enpresen digitalizazioa bultzatzea eta zerbitzu aurreratuen enpresak 4.0 industriara edo industria digitalera erakartzea.
20. Plan estrategiko bat garatzea, Eguzkitzako industria-lurren urbanizazioa barne, Durangon enpresak eta enpresa berriak ezartzeko tokia edukitzearren.
21. Durangoko hiri-sarean kokatutako industriekin lan egiteko plan eta agenda bat ezartzea, industria horien ihesa edo ixtea galarazteko, eta udalerriko —edo, bidezko bada, eskualdeko— egungo industrialde edo industrialde berrietara lekualdatzeko aukera sustatzea.






**Dinamización del comercio de proximidad**

El comercio local es un factor clave tanto de actividad económica como de calidad de vida. Su promoción y dinamización debe estar muy presente en la agenda, también, para conservar el dinamismo y capitalidad que Durango tiene para la comarca.

22. Desarrollo y promoción de la marca Durango, creando incluso un logo y merchandising de la propia marca.

23. Impulso al concepto de Durango como "centro urbano comercial", propiciando que la población de Durango y de toda la comarca compre y consuma en Durango.

24. Análisis de bonificación en tasas y licencias municipales para el impulso de nuevos establecimiento comerciales para personas empadronadas en Durango.

25. Dinamización del Casco Viejo como zona comercial:

    a. Cubrir zonas del Casco Viejo para atraer personas al comercio a lo largo de todo el año.

    b. Realizar concesiones administrativas de locales comerciales, en condiciones blandas, para el establecimiento del comercio, con cierta orientación estratégica (encanto, temática, dinamismo ).

26. Impulso a la remodelación de la plaza del mercado de forma que se constituya un eje de enlace entre dos de las dos zonas comerciales principales de la villa (Landako y Casco Viejo) [Ver apartado específico de Proyecto Estratégico].

27. Apertura 24 horas, 365 días de infraestructuras de apoyo al comercio, como el parking de Landako, para que se acerque la gente de otros pueblos.

28. Conexión de las actividades de promoción de Landako Erakustazoka con el comercio del municipio, de forma que generen un retorno indirecto en el comercio también.











**Hurbileko merkataritza dinamizatzea**

Toki-merkataritza funtsezkoa da, jarduera ekonomikorako zein bizi-kalitaterako. Haren sustapen eta dinamizazioak betiere egon behar du gure agendan, Durangok eskualdearentzat suposatzen duen dinamismoa eta hiriburutasuna kontserbatzeko.

22. Durango marka garatu eta sustatzea, markaren logo bat eta merchandisinga ere sortuz.

23. Durango "hirigune komertzial" gisa bultzatzea, Durangoko eta eskualde osoko herritarrek Durangon erosi eta kontsumi dezatela bultzatuz.

24. Durangon erroldatutako pertsonentzat udal-tasa eta udal-lizentzietan hobariak ezartzeko aukera aztertzea, merkataritza-establezimendu berriak bultzatzeko.

25. Alde Zaharra merkataritzagune gisa dinamizatzea:

    a. Alde Zaharreko eremu batzuk estaltzea, urte osoan jendea saltokietara erakartzeko.

    b. Merkataritza-lokalen administrazio-emakidak egitea baldintza samurretan, merkataritza ezartzeko, nolabaiteko orientazio estrategikoa emanez (xarma, gaiak, bizitasuna, etab.).

26. Merkatu Plazaren birmoldaketa bultzatzea, udalerriko merkataritzagune nagusietako bi (Landako eta Alde Zaharra) lotzeko ardatz bat eratzeko moduan [Ikus Proiektu Estrategikoari buruzko atal espezifikoa].

27. Merkataritzari laguntzeko egiturak 24 orduz irekitzea, 365 egunez, Landakoko aparkalekua adibidez, beste herri batzuetako jendea hurbil dadin.

28. Landako Erakustazoka sustatzeko jarduerak udalerriko saltokiekin lotzea, merkataritzan ere zeharkako itzulkina sor dezaten.



## Desarrollo turístico

La historia, el Casco Histórico, el Parque Natural de Urkiola, nuestra ubicación estratégica o las buenas comunicaciones, entre otras, deben hacer que el turismo crezca también en Durango. Bizkaia y Euskadi están también al alza en flujos turísticos; un turismo de nivel medio-alto que debe conocer la oferta de Durango, y Durangaldea.

29. Promoción de Durango como Km. 0 del mapa vasco, por su ubicación estratégica entre las tres capitales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

30. Impulso al turismo deportivo y de naturaleza:

    a. Atracción de un proyecto tractor de carácter cultural/urbano, vinculado a la naturaleza, como por ejemplo el Museo Vasco de Montaña.

    b. Complementar la oferta de espacios naturales y alojamientos, con actividades de naturaleza como excursiones, cursos de escalada...

    c. Impulso al ciclismo de carretera y de montaña, de amplia tradición y espacios idílicos en nuestro entorno, como reclamo para visitantes a nuestro municipio.

31. Impulso al turismo profesional o de congresos:

    a. Desarrollo de una estrategia de promoción de Landako Erakustazoka en el mercado de infraestructuras para atraer eventos multitudinarios, así como ferias y congresos de tamaño medio.

    b. Apoyo a las y los promotores locales que quieran desarrollar/atraer iniciativas, con potencial de atracción de personas y empresas.

32. Impulso al turismo urbano y cultural, con la creación de guías, paquetes, ofertas específicas en Durango, y la comarca.



## Turismo-garapena

Besteak beste, historiak, Hirigune Historikoak, Urkiola Parke Naturalak, gure kokapen estrategikoak edo komunikabide egokiek lagungarri izan behar dute turismoa Durangon ere hazi dadin. Bizkaian eta Euskadin ere turismo-fluxuak gorantz doaz, eta maila ertain-handiko turismo horrek Durangoko eta Durangaldeko eskaintza ere ezagutu behar du.

29. Durango euskal maparen 0 Km gisa sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen arteko kokapen estrategikoa duen heinean.

30. Kirol- eta natura-turismoa bultzatzea:

    a. Naturari lotutako kultura- eta hiri-proiektu traktore bat erakartzea, Mendiko Euskal Museoa adibidez.

    b. Naturagune eta ostatuen eskaintza naturako jarduerekin osatzea, hala nola txangoak, eskalada-ikastaroak eta abar.

    c. Errepideko eta mendiko txirrindularitza bultzatzea, gure ingurunean tradizio luzea eta gune idilikoak dauzkala aintzat hartuta, gure udalerrira bisitariak erakartzeko.

31. Profesionalen edo biltzarren turismoa bultzatzea:

    a. Azpiegituren merkatuan Landako Erakustazoka sustatzeko estrategia bat garatzea, ekitaldi jendetsuak eta azoka eta neurri ertaineko biltzarrak erakartzeko.

    b. Pertsona eta enpresak erakartzeko ahalmena duten ekimenak garatu eta erakarri nahi dituzten toki-sustatzaileei laguntzea.

32. Hiri- eta kultura-turismoa bultzatzea, Durangon eta eskualdean gida, pakete eta eskaintza espezifikoak sortuz.





**Desarrollo sostenible**

Durango ha desarrollado iniciativas pioneras en materia de sostenibilidad en los últimos años. Este recorrido y experiencia nos ha dado un lugar en el mapa de la sostenibilidad. Aprovecharlo puede ser clave para atraer un sector de actividad con tanto futuro como el vinculado a la sostenibilidad.

33. Desarrollo de un plan de atracción de actividad económica y empleo de calidad, en los sectores de la sostenibilidad, medio ambiente, energías renovables y Smart cities.
34. Activación de los diversos reconocimientos logrados en materia de sostenibilidad y accesibilidad como reclamos para el sector.
35. Impulso a actividades o ferias vinculadas a la sostenibilidad, como Berdeago.
36. Análisis de las emisiones de empresas potencialmente contaminantes y desarrollo de un plan de acción para su eliminación progresiva.
37. Colaboración con municipios de colindantes para trabajar en el control y reducción del olor producido por emisiones de empresas.



**Garapen jasangarria**

Azken urteetan Durangok ekimen aitzindariak garatu ditu jasangarritasunaren alorrean. Ibilbide eta esperientzia horrek jasangarritasunaren mapan toki bat egiteko aukera eman digu. Eta hori aprobetxatzea funtsezkoa izan daiteke jasangarritasunari lotutako etorkizun handiko jarduera-sektore bat erakartzeko.

33. Jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua erakartzeko plan bat garatzea jasangarritasunaren, ingurumenaren, energia berriztagarrien eta Smart citien sektoreetan.
34. Jasangarritasun- eta irisgarritasun-alorretan lortutako aitortzak sektorerako erakargarri gisa aktibatzea.
35. Jasngarritasunarekin lotutako jarduera edo azokak bultzatzea, Berdeago adibidez.
36. Kutsa dezaketen enpresen emisioak aztertzea eta pixkanaka desagerrarazteko ekintza-plan bat garatzea.
37. Aldameneko udalerriekin elkarlanean, enpresen emisioek eragindako usaina kontrolatu eta murriztea.

**Formación superior** **[Proyecto estratégico]**

La relación entre mayores niveles de formación y empleo de calidad es muy alta. El nuevo contexto de digitalización de la actividad económica apunta a que las actividades profesionales con capacidad de mantener empleos de calidad en el futuro tienen un alto componente de conocimiento e interacción. Impulsar la formación en la comarca puede ser factor de competitividad de nuestras empresas y garantía de calidad del empleo de las personas que vivimos en Durangaldea.

38. Potenciación de la oferta educativa, tanto continua como básica, aprovechando la excelencia de los centros y la calidad de la formación en ellos ofrecida.

39. Potenciación de los centros formativos con oferta específica, singular o de régimen especial que atraigan estudiantes de todo el Territorio.

40. Implicación institucional para implantar una oferta formativa superior (formación profesional o universitaria) de referencia en Euskadi.

41. Reserva de suelo para actividades educativas en zonas estratégicas del municipio.

42. Impulso a nueva oferta formativa de alta especialización de los centros de Durango en áreas de conocimiento y actividad económica con proyección futura y alto valor añadido (economía circular, energía, industria 4.0).

43. Impulso al diálogo y colaboración de los centros educativos con las empresas del entorno para conectar demanda futura (de trabajadoras y trabajadores) y oferta (formativa).

44. Desarrollo de un plan de necesidades profesionales de las empresas de la zona en el futuro próximo, para crear y atraer el talento que necesitan, como fórmula de vigilancia competitiva.

45. Impulso a equipamientos residenciales para que estudiantes provenientes de zonas alejadas puedan valorar formarse en Durango, como fórmula de atracción de talento.

46. Apoyo y conexión con empresas de la zona a los proyectos de emprendimiento que surjan de los centros formativos de la zona.







**Goi-mailako prestakuntza** **[Proiektu estrategikoa]**

Prestakuntza-maila handiagoen eta kalitatezko enpleguaren arteko harremana oso estua da. Jarduera ekonomikoaren digitalizazioa nagusitzen ari den testuinguru berriaren arabera, etorkizunean kalitatezko enpleguei eusteko ahalmena izango duten jarduera profesionalak jakintzarekin eta elkarreraginarekin daude lotuta, neurri handi batean. Eskualdean prestakuntza bultzatzea gure enpresen lehiakortasunerako mesedegarri izan daiteke, eta Durangaldean bizi garenon enpleguaren kalitate-bermea.

38. Etengabeko zein oinarrizko hezkuntza-eskaintza indartzea, ikastetxeen bikaintasuna eta ikastetxeetan eskainitako prestakuntzaren kalitatea aprobetxatuz.

39. Eskaintza espezifikoa, berezia edo erregimen berezikoa duten ikastetxeak indartzea, Lurralde osoko ikasleak erakar ditzaten.

40. Inplikazio instituzionala Euskadin erreferentziazkoa izango den goi-mailako prestakuntza-eskaintza bat (lanbide-heziketa edo unibertsitate-prestakuntza) ezartzeko.

41. Udalerriko eremu estrategikoetan hezkuntza-jardueretarako lursailak erreserbatzea.

42. Durangoko ikastetxeetan espezializazio handiko prestakuntza-eskaintza berri bat bultzatzea, etorkizuna eta balio erantsi handia duten (ekonomia zirkularra, energia, 4.0 industria) jarduera ekonomiko eta jakintza-alorretan.

43. Inguruko ikastetxe eta enpresen arteko elkarrizketa eta lankidetza bultzatzea, etorkizuneko eskaria (langileak) eta eskaintza (prestakuntza) lotzeko.

44. Etorkizun hurbilerako eremuko enpresen premia profesionalen plan bat garatzea, behar duten talentua sortu eta erakartzeko, lehia zaintzeko formula den heinean.

45. Bizitegitarako ekipamenduak bultzatzea, urrutitik datozen ikasleek Durangon ikasi eta prestatzeko aukera baloratzeko aukera izan dezaten, talentua erakartzeko formula gisa.

46. Eremuko enpresei laguntzea eta haiekin elkarlanean aritzea, eremuko ikastetxeetan sortzen diren ekintzailetza-proiektuak bultzatzeko.



# Bizi kalitatea

# Calidad de vida

# 6. Calidad de vida

Duranguesas y durangueses valoramos muy positivamente (por encima de 8 sobre 10) nuestro municipio y la calidad de vida que tenemos. Estos datos, lejos de hacernos caer en la autocomplacencia, han animado a las y los participantes de DURANGO HELBURU en estos últimos meses a proponer cursos de acción que, a bien seguro, harán mejor, aún si cabe, la vida en Durango.

**Personas Mayores**

El grupo de población que más ha crecido en los últimos años, son las personas mayores. Si bien Durango es un municipio joven, en términos comparados con el entorno, la extensión de la vida de duranguesas y durangueses debe impulsar nuevas estrategias y respuestas, que activen su papel social y la respuesta a sus necesidades.

47. Potenciar el papel activo de las personas mayores en la vida diaria de Durango:

    a. Desarrollo de acciones de sensibilización y lucha contra los estereotipos sobre las personas mayores.

    b. Puesta en valor de la aportación de las personas mayores al sostenimiento de la actividad asociativa, cultural, económica de Durango.

    c. Adaptar la oferta de servicios de carácter lúdico, deportivo y cultural a las diferentes necesidades y situaciones de salud, incorporando la perspectiva de edad a las mismas.

    d. Impulso a una oferta formativa accesible a personas de diferentes edades.

48. Impulso de actuaciones que intencionadamente acerquen a mayores y jóvenes, para aprovechar el conocimiento y la experiencia como factores de integración y motivación de ambas generaciones.

49. Desarrollo de servicios complementarios a domicilio, medios de protección, supervisión o seguridad que promuevan la permanencia de las personas mayores en su hogar.

50. Desarrollo de programas de vivienda adaptada a las nuevas necesidades provocadas por la edad, que eviten la institucionalización, en formato de apartamentos tutelados o viviendas compartidas.

51. Adaptación y flexibilización de los recursos actuales a las preferencias y deseos de las personas mayores, incluso creando nuevos recursos intermedios, no tan intensos como centros de día o residencias.

52. Habilitar las respuestas necesarias para acoger la creciente demanda de plazas residenciales para personas mayores.





# 6. Bizi-kalitatea

**Adinekoekin uri atsegina**

Durangarrok oso positiboki balioesten dugu (10etik 8aren gainetik) gure udalerria eta gure bizi-kalitatea. Datu horiek autokonplazentzian erorarazi beharrean, DURANGO HELBURUN parte hartzen dugunoi animoak eman dizkigute azken hilabeteotan, ezbairik gabe Durangon are hobeto bizitzea ahalbidetuko duten ekintza-ildoak proposatzeko.




**Adinekoak**

Azken urte hauetan gehien hazi den biztanle taldea adineko pertsonak dira. Inguruetako udalerrien aldean Durango udalerri gaztea bada ere, durangarren bizitza luzatzeak estrategia eta erantzun berriak bultzatu behar ditu, durangarrek gizartean hartu beharreko zeregina aktibatzeko eta durangarren premiei erantzuteko.

47. Adinekoek Durangoko eguneroko bizitzan duten zeregin aktiboa indartzea:

    a. Adinekoen gaineko estereotipoen kontrako borroka eta sentsibilizaziorako ekintzak garatzea.

    b. Adinekoek Durangoko jarduera asoziatibo, kultural eta ekonomikoari eusteko egiten duten ekarpena balioan jartzea.

    c. Kirol- eta kultura-zerbitzuen eta zerbitzu ludikoen eskaintza osasun-premia eta osasun-egoera guztietara egokitzea, adinaren ikuspegia erantsiz.

    d. Adin guztietako pertsonentzako prestakuntza-eskaintza bultzatzea.

48. Adinekoak eta gazteak elkarrengana hurbiltzeko asmoa duten jarduerak bultzatzea, jakintza eta esperientzia aprobetxatzeko bi belaunaldien integrazio eta motibaziorako eragileak diren heinean.

49. Etxez etxeko zerbitzu osagarriak eta babesteko, gainbegiratzeko edo segurtasuneko bitartekoak garatzea, adinekoek etxean egoteko aukera sustatzeko .

50. Adinak eragindako premia berrietara egokitutako etxebizitza-programak garatzea, tutoretzapeko apartamentuen edo etxebizitza partekatuen formatuan, instituzionalizazioa saihestuz.

51. Egungo baliabideak malgutzea eta adinekoen lehentasun eta nahietara egokitzea, eguneko zentro edo egoitzek baino intentsitate txikiagoan diharduten bitarteko baliabide berriak ere sortuz.

52. Adinekoentzako bizitegitarako plazetan goraka doan eskariaren aurrean eman beharreko erantzunak prestatzea.

**Diversidad**

Durango somos las personas que vivimos y trabajamos aquí. Nos une Durango, un lugar donde compartimos nuestra vida. Potenciar el **sentimiento de pertenencia**, para que tanto durangueses y duranguesas de toda la vida, como quienes hemos venido más recientemente a Durango nos identifiquemos con su futuro y lo impulsemos debe ser parte de la agenda de trabajo.

53. Apoyo a las actividades interculturales y de diversidad, incorporándolas a las actividades ordinarias de fiestas, Euskal Astea, programación de salas, dándoles cobertura institucional.

54. Impulso a programas de acercamiento a personas con diversidad funcional (discapacidad), cultural o étnica, con programas como "Habla con él".

55. Promoción de las actividades interculturales existentes e impulso de nuevas





**Aniztasuna**

Durango hemen bizi garen eta lan egiten dugun pertsonok osatzen dugu. Durangok batzen gaitu, gure bizitza Durangon partekatzen dugulako. **Kidetasun-sentimendua** indartu behar dugu, betiko durangarrek eta Durangora etorri berri garenok Durangoren etorkizunarekin bat egin eta etorkizun hori bultza dezagun, helburu hori gure lan-agendan bilduz.

53. Kulturarteko eta aniztasunerako jarduerak bultzatzea, jaietako, Euskal Asteko edota aretoen programazioko ohiko jarduedretara ekarriz eta jarduerei erakundeen estaldura emanez.

54. Dibertsitate funtzionala (desgaitasuna), kulturala edo teknikoa duten pertsonengana hurbiltzeko programak bultzatzea ("Hitz egin harekin" programa adibidez).

55. Lehendik dauden kulturarteko jarduerak sustatzea eta berriak bultzatzea













## Gazteok ere

En demasiadas ocasiones se afirma que la juventud es el futuro; para nosotros la juventud es Durango hoy, y nuestro municipio debe mirar al futuro desde sus ojos. Además de su papel activo en todas las líneas de este documento, aquí se subrayan algunas actuaciones que han surgido en el proceso específicamente vinculadas a esta franja de edad.

56. Planificación de actividades abiertas al municipio y la vida municipal en los centros educativos, con especial foco en la infancia y juventud (udalekus, fiestas, actividades deportivas ).
57. Impulsar el uso de las instalaciones deportivas municipales por la población más joven, mediante bonificación de tasas y diseño de actividades atractivas para ellas y ellos.
58. Avance en la cubrición de zonas de ocio infantil, y mantenimiento de Landako Erakustazoka u otras infraestructuras municipales como espacios abiertos para esta franja de edad.
59. Valorar nuevas actividades y espacios dirigidos a la juventud, con su implicación en el diseño y despliegue.
60. Creación de un parque de skate, freerun, parkour y/o rocódromo en espacio liberado del ferrocarril, incluso aprovechando provisionalmente los espacios hasta su desarrollo definitivo.
61. Análisis de la viabilidad y diseño de un centro destinado al ocio juvenil en edificio municipal, sin uso actual, analizando iniciativas existentes en otros municipios.



## Gazteok ere

Behar baino gehiagotan esaten da gazteak etorkizuna direla; guretzat, ordea, gazteak egungo Durango dira, eta gure udalerriak haien begietatik begiratu behar du etorkizunera. Dokumentu honen lerro guztietan duten zeregin aktiboaz gainera, prozesuan adin-tarte horri lotuta sortu diren jardun espezifiko batzuk azpimarratu nahi izan ditugu hemen.

56. Ikastetxeetan udalerrira eta udal-bizitzara irekitako jarduerak planifikatzea, haur eta gazteei arreta berezia eskainiz (udalekuak, jaiak, kirol-jarduerak, etab.).
57. Herritar gazteenek udalaren kirol-instalazioak erabil ditzatela bultzatzea, tasa-hobarien bitartez eta haientzako jarduera erakargarriak diseinatuz.
58. Haurrentzako aisiaguneak estaltzeko lanetan aurrera egitea, eta Landako Erakustazoka edo beste udal-azpiegitura batzuk mantentzea, adin-tarte horretarako gune ireki gisa.
59. Gazteentzako jarduera eta gune berriak balioestea, gazteak diseinuan eta zabalkundean inplikatuz.
60. Skate, freerun, parkour eta abar praktikatzeko parke eta/edo rokodromo bat sortzea trenbidetik aske utzitako gunean, espazioak aldi baterako aprobetxatuz ere, behin betiko garatu arte.
61. Une honetan erabiltzen ez den udal-eraikin batean gazteen aisiarako zentro baten bideragarritasuna eta diseinua aztertzea, beste udalerri batzuetan abian jarritako ekimenak aztertuz.











**Durangon euskaraz**

Sin lugar a dudas el euskera es parte de la identidad de Durango. De hecho, una vez al año, con motivo de la Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka, Durango se convierte en capital del euskara. En las últimas décadas, se ha producido un importante crecimiento del conocimiento del euskera, que debemos consolidar en el uso en la vida diaria de nuestro municipio.

62. Promoción del uso del euskera en la calle y en casa, más allá de espacios formales.
63. Impulso al Plan General de Promoción del Uso del Euskera en Durango.
64. Impulso a actividades y programas concretos que apoyen la sensibilización, como "Euskararen Eguna".
65. Impulso a programas que apoyen el uso y conecten a vascoparlantes, como "Berbalagun".
66. Impulso decidido al órgano "Euskararen Udal Kontseilua".

**Dinamismo asociativo**

Durango tiene un dinamismo asociativo ejemplar, reflejo de su identidad. La multitud de entidades vinculadas al euskera, la cultura, el comercio, el deporte, la solidaridad no tiene parangón en nuestro entorno. Y la referencialidad de algunas de ellas trasciende los límites de nuestra comarca. Cuidar ese dinamismo, articularlo, reforzarlo es clave en estos tiempos en que las sociedades modernas tienden a la individualización.

67. Impulso de un espacio físico y de coordinación asociativo donde se avance en el conocimiento mutuo, comunicación y colaboración entre asociaciones que trabajan en Durango.
68. Articulación de mecanismos de coordinación para el aprovechamiento más eficiente de recursos y espacios a disposición del tejido asociativo.
69. Impulso a proyectos de colaboración entre asociaciones del municipio, e impulso de nuevas respuestas en colaboración.
70. Establecimiento de criterios base claros, abiertos a todas las asociaciones para la concesión de subvenciones y suscripción de convenios.





**Durangon euskaraz**

Ezbairik gabe, euskara Durangoren nortasunaren parte da. Izan ere, urtean behin, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka dela-eta, Durango euskararen hiriburu bihurtzen da. Azken hamarkadetan, euskararen jakintzan hazkunde handia nabari da, eta, ildo horretan, erabilera sendotu beharrean gaude gure udalerriko eguneroko bizitzan.

62. Kalean eta etxean euskararen erabilera sustatzea, eremu formaletatik haratago.
63. Durangon Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra bultzatzea.
64. Sentsibilizazioa sustatzen duten jarduera eta programa zehatzak sustatzea, "Euskararen Eguna" adibidez.
65. Erabilera bultzatzeko eta euskal hiztunak harremanetan jartzeko programak sustatzea, "Berbalagun" esaterako.
66. "Euskararen Udal Kontseilua" organoari bultzada irmoa ematea.

**Elkartzeko dinamismoa**

Durangon elkartzeko dinamismo eredugarria nabari da, haren nortasunaren adierazgarri. Euskarari, kulturari, merkataritzari, kirolari eta elkartasunari lotutako erakundeen ugaritasunak ez du parerik gure inguruetan. Haietako batzuk erreferenteak dira, eta gure eskualdeko mugak gainditzen dituzte. Dinamismo hori zaintzea, antolatzea eta indartzea funtsezkoa da, gizarte modernoetan indibidualizaziorako joera nagusitzen ari den garai honetan.

67. Elkarteak koordinatzeko gune fisiko bat sustatu behar da, non Durangon diharduten elkarteen arteko elkar ezagutzan, komunikazioan eta lankidetzan aurrera egingo den.
68. Koordinazio-mekanismoak antolatzea elkarte-sarearen eskura dauden baliabide eta espazioak efizientzia handiagoz aprobetxatzeko.
69. Udalerriko elkarteen arteko lankidetzarako proiektuak bultzatzea, eta lankidetza-erantzun berriak bultzatzea.
70. Diru-laguntzak emateko eta hitzarmenak harpidetzeko oinarrizko irizpide argiak ezartzea, elkarte guztientzat irekiak.








**Dinamismo cultural**

La actividad cultural de impulso público, privado y asociativo es muy rica y variada en Durango, de eso no hay duda. Coordinarla y potenciarla más y mejor haría de ella una referencia para la comarca y el País, fuente de dinamismo y riqueza cultural, social y económica.

71. Impulso a la agenda cultural unificada:

    a. Coordinación entre ayuntamiento y asociaciones de calendario de actividades anual, planificando mes a mes.

    b. Difusión de la agenda unificada con un nuevo desarrollo web.

    c. Promoción de la agenda unificada en medios de comunicación clásicos y nuevos (tótems, pantallas en servicios municipales, redes sociales ).

72. Implicación de los centros educativos en la agenda cultural unificada, para incorporar sus actividades y divulgarla en sus centros.

73. Impulso a actividades deportivas, culturales, gastronómicas en el contexto de Durangoko Azoka que atrae anualmente a decenas de miles de personas a Durango.



**Kultura-dinamismoa**

Erakunde publiko eta pribatuek eta elkarteek kultura-jarduera bultzatzen dute Durangon, eta jarduera hori oso aberatsa eta askotarikoa da, ezbairik gabe. Gehiago eta hobeto koordinatu eta indartuko balitz, erreferentzia bihurtuko litzateke eskualdearentzat eta Herrialdearentzat, dinamismo eta aberastasun kultural, sozial eta ekonomikoaren iturri.

71. Kultura-agenda bateratua bultzatzea:

    a. Udalaren eta elkarteen artean urteko jarduera-egutegia koordinatzea, hilabetez hilabeteko plangintza eginez.

    b. Agenda bateratu bat zabaltzea, web garapen berri bat barne.

    c. Komunikabide klasiko eta berrietan (totemak, udal-zerbitzuetako pantailak, sare sozialak, etab.) agenda bateratua sustatzea.

72. Ikastetxeak kultura-agenda bateratuan inplikatzea, beren jarduerak txertatzeko eta agenda hori beren ikastetxeetan zabaltzeko.

73. Durangoko Azokaren testuinguruan hainbat alorretako (kirola, kultura, gastronomia) jarduerak bultzatzea, urtero-urtero ekimen horrek Durangora milaka eta milaka pertsona erakartzen dituela aintzat hartuta.












**Práctica deportiva**

La calidad de vida está íntimamente vinculada a los hábitos de vida saludable. La práctica deportiva es un factor importante de buena salud y longevidad. Las instalaciones deportivas de primer nivel de Durango y su fomento contribuyen a la calidad de vida de duranguesas y durangueses, además de ser un elemento dinamizador de la vida en el municipio.

74. Impulso a la apertura los fines de semana (incluso domingos por la tarde) de infraestructuras deportivas municipales con altos niveles de uso y demanda en sus horarios de apertura habituales.

75. Apertura de los centros educativos los fines de semana como espacios públicos para uso lúdico-deportivo.

76. Mejora de los servicios complementarios de las piscinas exteriores, como restauración o merendero, para incrementar la satisfacción y uso.

77. Promoción e información del apoyo y subvenciones existentes para el desarrollo de la práctica deportiva en clubs y organizaciones locales.

78. Promoción de la organización de eventos deportivos por entidades afincadas en el municipio.

79. Impulso y promoción del deporte rural o autóctono, en el espacio público.

80. Reactivación del ciclismo como práctica en edades escolares donde ha sufrido un retroceso.



**Kirol-praktika**

Bizi-kalitatea bizi-ohitura osasungarriekin estu lotuta dago. Kirola egitea oso lagungarria da osasuna edukitzeko eta bizitza luzatzeko. Durangoko lehen mailako kirol-instalazioak eta haien sustapena durangarren bizi-kalitaterako mesedegarri dira, eta, horrez gain, udalerriko bizitza dinamizatzeko eragile ere badira.

74. Ohiko irekitze-orduetan erabilera- eta eskari-maila handia duten udalaren kirol-azpiegiturak asteburuetan ere (igande arratsaldeak barne) irekita egotea bultzatzea.

75. Ikastetxeak asteburuetan irekitzea, kirol-erabilera eta erabilera ludikorako gune publiko gisa.

76. Kanpo-igerilekuetako zerbitzu osagarriak hobetzea, jatetxe edo merenderoak adibidez, jendearen gogobetetzea eta erabilera areagotzeko.

77. Tokiko erakunde eta klubetan kirol-praktika garatzeko eskuragarri dauden laguntza eta diru-laguntzak sustatzea eta haien berri ematea.

78. Udalerrian finkatutako erakundeek kirol-ekitaldiak antola ditzatela sustatzea.

79. Espazio publikoan herri-kirola edo bertako kirola bultzatu eta sustatzea.

80. Txirrindularitzaren praktika berpiztea atzerakada izan duen eskola-adinetan.












**Movilidad sostenible** **[Proyecto estratégico]**

Durango es un municipio dinámico, donde personas que viven en Durango, se mezclan con quienes trabajan en él. Nuestra condición de cabecera de comarca y punto neurálgico entre las tres capitales de la Comunidad Autónoma Vasca atrae flujos de personas y vehículos que debemos articular con parámetros de sostenibilidad y accesibilidad, evitando excesivo tráfico en el centro, favoreciendo la peatonalización y las conexiones a pie y en bicicleta.

81. Impulso a un proyecto integral de movilidad urbana, con diferentes perspectivas y planes de actuación (de alguna manera, se apuntan a continuación).
82. Impulso a la movilidad interurbana dentro de Durangaldea:
    a. Desarrollo del servicio de transporte adaptado en Durango/Durangaldea, como factor de movilidad interna y accesibilidad universal a los servicios de todas las personas, sin excepción.
    b. Analizar la viabilidad e interés de reforzar el transporte interurbano de la comarca (en los medios actualmente en funcionamiento).
    c. Creación de un servicio de microbús en la conurbación Iurreta-Durango-Matiena-Abadiño-(Mañaria-Izurza).
83. Impulso a la extensión y conexión de la red de bidegorris con municipios de Durangaldea.
84. Avance de la sensibilización y respeto de vías, espacios, velocidades y usos entre vehículos, bicicletas y peatones.
85. Fomento del uso de la bicicleta, para una movilidad interna más sostenible:
    a. Desarrollo de un plan general de reordenación del carril bici por todo el municipio, mejorando la red actual.
    b. Fomento de la conexión de diferentes medios de transporte con la bicicleta, promoviendo la inter-modalidad ciclista, con aparca-bicis seguros y bicicletas de alquiler, en puntos de inter-modalidad (aparcamientos periféricos, estaciones de transporte público).
    c. Impulso a actividades complementarias que animen al uso de la bicicleta, como talleres de reparación y mantenimiento.
    d. Mejora de la señalización de la red ciclable.







**Mugikortasun jasangarria** **[Proiektu estrategikoa]**

Durango udalerri bizia da, eta Durangon bizi direnak bertan lanean dihardutenekin nahasten dira. Eskualdeko burua garenez eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen arteko bidegurutzean gaudenez, hainbat pertsona eta ibilgailu erakartzen ditugu, eta fluxu horiek antolatzeko gauza izan behar dugu jasangarritasun- eta irisgarritasun-parametroei jarraikiz, erdigunean gehiegizko trafikoa saihestuz, eta oinezkoentzako bideei eta oinezko eta bizikleten lotuneei lehentasuna emanez.

81. Hiri-mugikortasuneko proiektu integral bat bultzatzea, hainbat ikuspegi eta jardun-plan biltzen dituena (jarraian laburbilduko ditugu).
82. Durangaldean hiriarteko mugikortasuna bultzatzea:
    a. Durangon/Durangaldean garraio egokituko zerbitzua garatzea, barne-mugikortasunaren eragile gisa, eta zerbitzuak pertsona guzti-guztien eskura jartzea, salbuespenik gabe.
    b. Eskualdeko hiriarteko garraioa (une honetan indarrean dauden garraiobideetan) indartzea bideragarria eta interesgarria ote den aztertzea.
    c. Iurreta-Durango-Matiena-Abadiño-(Mañaria-Izurtza) konurbazioan mikrobus-zerbitzu bat sortzea.
83. Bidegorri-sarea zabaltzeko eta Durangaldeko udalerriekin lotzeko proiektuari bultzada ematea.
84. Ibilgailu, bizikleta eta oinezkoen artean bide, espazio, abiadura eta erabileren gaineko sentsibilizazioan eta errespetuan aurrera egitea.
85. Bizikletaren erabilera sustatzea, barne-mugikortasuna jasangarriagoa izan dadin:
    a. Udalerri osoko bidegorriak berrantolatzeko plan orokor bat garatzea, egungo sarea hobetzeko.
    b. Zenbait garraiobide bizikletarekin lotzeko aukera sustatzea, bizikleten intermodalitatea sustatzeko aparkaleku seguruak eta alokairuko bizikletak ezarriz intermodalitateko guneetan (aparkalekuak aldirietan, garraio publikoko geltokiak).
    c. Bizikletaren erabilera bultzatzen duten jarduera osagarriak sustatzea, konponketa- eta mantentze-tailerrak adibidez.
    d. Bizikleta-sareko seinaleak hobetzea.











86. Desarrollo de un plan global de aparcamientos de vehículos, que incluya:

    a. Ordenación del aparcamiento de auto caravanas, incluso con la creación de un parking específico.

    b. Fomento del uso de aparcamientos disuasorios.

    c. Análisis de la ampliación del sistema OTA a zonas hoy no afectas a éste.

    d. Consideración de la realidad de las personas que acuden a Durango a trabajar, y sus hábitos de movilidad y aparcamiento.

87. Acondicionamiento de parada central de autobuses (Magdalena) y estudio de necesidad y, en su caso, viabilidad de construcción de estación intermodal.

88. Culminación del anillo exterior, con la conexión Urki-Hegoalde, para evitar tráfico de paso en la trama urbana del municipio.

89. Implantación progresiva de sistemas con fuentes de energía renovables en equipamientos municipales.

90. Impulso al uso de medios de locomoción de cero emisiones o movilidad eléctrica.

91. Impulso a la accesibilidad universal urbana, en edificios municipales y servicios de interés general.



86. Ibilgailu-aparkalekuen plan global bat garatzea, honako hauek barne:

    a. Autokarabana-aparkalekua antolatzea, aparkaleku espezifiko bat ere sortuz.

    b. Disuasio-aparkalekuen erabilera sustatzea.

    c. TAO sistema gaur egun sistema hori ezarrita ez dagoen beste eremu batzuetara zabaltzeko aukera aztertzea.

    d. Durangora lanera datozen pertsonen errealitatea eta mugikortasuneko eta aparkatzeko dauzkaten ohiturak aintzat hartzea.

87. Autobusen geltoki nagusia (Madalena) egokitzea, eta geltoki intermodala eraikitzea beharrezkoa ote den eta, bidezko bada, bideragarria ote den aztertzea.

88. Kanpo-eraztuna amaitzea Urki-Hegoalde lotunearekin, udalerriko hiri-bilbetik igarotzen den trafikoa saihesteko.

89. Udal-ekipamenduetan, pixkana-pixkana, energia berriztagarrien iturriak dituzten sistemak ezartzea.

90. Zero emisioko edo mugikortasun elektrikoko lokomozio-bideen erabilera bultzatzea.

91. Udal-eraikinetan eta interes orokorreko zerbitzuetan hiri-irisgarritasun unibertsala bultzatzea.





# Etorkizuneko espazioak

# Espacios de futuro

# 7. Espacios de futuro

Los espacios públicos de Durango han de ser el contexto para una vida de experiencias positivas, compartidas y constructivas, de quienes vivimos, trabajamos en Durango y de quienes vienen a Durango de alrededor o más lejos. Su cuidado, puesta en valor y dinamización juegan un papel importante en el Durango 2030 que dibujamos, que ha de ser un municipio abierto, una invitación para vivirlo.

**Espacios de encuentro**
Las infraestructuras y patrimonio municipal son una gran oportunidad para desarrollar o atraer nuevas actividades y servicios al municipio, que redunden en la vida social, económica y cultural de durangueses y duranguesas.

92. Recuperación o revalorización de edificios, suelos e instalaciones en desuso o infrautilizados, con una perspectiva de sostenibilidad, para la mejora del entorno urbano:
    a. Diagnóstico de necesidades urgentes de intervención en el parque edificado.
    b. Análisis de características, uso actual, estado de conservación y potencialidad de los espacios.
93. Análisis de viabilidad de rehabilitación y apertura del Frontón de Ezkurdi, para sus clásicos usos u otros nuevos de carácter lúdico, cultural o deportivo.
94. Remodelación de Ezkurdi, conectándolo con el nuevo desarrollo de la zona del ferrocarril, revalorizando el kiosco y optimizando sus usos para actividades lúdicos culturales (conciertos, bertso-saioak, bailes ).
95. Impulsar el uso de las instalaciones culturales, como Pinondo Etxea, mediante la apertura los fines de semana (incluso domingos por la tarde).
96. Fomento del uso de Landako Erakustazoka para el desarrollo de actividades populares, con reducción de tasas y gastos inherentes a su apertura.
97. Eliminación de puntos negros estéticos y mejora de la limpieza y la iluminación exterior de las calles para hacer de Durango un lugar más atractivo, especialmente en puntos neurálgicos de la villa, como el Pórtico de Santa María.
98. Incrementar la iluminación y visibilidad de puntos de riesgo como pasos de cebra e intersecciones.





# 7. Etorkizuneko espazioak

Durangoko espazio publikoek testuinguru egoki bat osatu behar dute, Durangon bizi eta lan egiten dugunok eta Durangora inguruetatik edo urrunagotik datozenek esperientzia positibo, partekatu eta konstruktiboak bizi ditzaten. Espazio publiko horiek zaindu, balioan jarri eta dinamizatzea funtsezkoa da marrazten ari garen 2030eko Durangorako, gure udalerriak irekia izan behar duelako, hura bizitzeko gonbidapena eginez.

**Topaguneak**
Udal-azpiegiturek eta udal-ondareak aukera ezin hobea eskaintzen dute udalerrian jarduera eta zerbitzu berriak garatu eta bertara erakartzeko, durangarren bizitza sozial, ekonomiko eta kulturalean eragina izan dezaten.

92. Zaharkituta geratu diren edo gutxiegi erabiltzen diren eraikin, lursail eta instalazioak berreskuratu edo birbaloratzea jasangarritasun-ikuspegi batetik, hiri-ingurunea hobetzeko:
    a. Eraikitako parkean esku hartzeko premia urgenteak diagnostikatzea.
    b. Espazioen ezaugarriak, egungo erabilera, kontserbazio-egoera eta ahalmena aztertzea.
93. Ezkurdiko pilotalekua birgaitzea eta irekitzea bideragarria ote den aztertzea, ohiko erabileretarako edo beste erabilera berri batzuetarako (ludikoak, kulturalak edo kirolekoak).
94. Ezkurdi birmoldatzea, trenbidearen eremuko garapen berriarekin lotuz, kioskoa birbalorizatuz eta jarduera ludiko eta kulturaletarako dauzkan erabilerak optimizatuz (kontzertuak, bertso-saioak, dantzak, etab.).
95. Kultura-instalazioen —Pinondo Etxea adibidez— erabilera bultzatzea asteburuetan irekiz, baita igande arratsaldeetan ere.
96. Landako Erakustazoka herri-jarduerak garatzeko erabili dadila sustatzea, irekitzeari dagozkion tasa eta gastuak murriztuz.
97. Puntu beltz estetikoak desagerraraztea eta kaleetako garbitasuna eta kanpo-argiteria hobetzea, Durango toki erakargarriagoa bihurtzeko, udalerriko gune nagusietan bereziki, Andra Mariaren basilikako arkupean adibidez.
98. Argitasuna eta ikusgaitasuna hobetzea gune arriskutsuetan, zebrabide eta bidegurutzeetan esaterako.





**Remodelación de la plaza del mercado** **[Proyecto estratégico]**

Por su ubicación entre el Casco Histórico y el centro neurálgico del municipio, el edificio de la Plaza del Mercado es una infraestructura estratégica para el futuro de Durango. Su revitalización para la vida comercial, social y cultural del municipio puede ser un elemento dinamizador clave.

99. Desarrollar un proceso de remodelación de la plaza del mercado que la convierta en el eje de enlace de las diferentes zonas de Durango, y la convierta en un polo de atracción.

100. Impulsar un concurso de ideas para su remodelación, con incorporación de la participación ciudadana en alguna de las fases.

101. Análisis de las funciones o usos que podría albergar el centro, tratando de compatibilizar diversas funciones:

    a. Potenciar la actividad del producto local, compatible con la actividad de servicios.

    b. Habilitación de espacios para actividades de ocio juvenil (gaztegune, txikigune), cultural (auditórium, exposiciones) y social (torneos, concursos).

102. Dinamización de actividades vinculadas a los usos de la plaza y la estrategia como municipio, de deporte y cultura vasca, hábitos de vida saludable, alimentación saludable, desarrollo sostenible, producción local

103. Impulso a la apertura de la plaza y su actividad a las calles circundantes.

104. Extrapolación del concepto –Elkartegi– para la plaza del mercado (que incluye los puestos permanentes, así como los baserritarras), con alquileres accesibles.

105. Creación de responsable o ente encargado de la dinamización de la plaza y las actividades a desarrollar en la misma, de forma que sea un factor de atracción de actividad y visitas al municipio.



**Merkatu plazako birmoldaketa** **[Proiektu estrategikoa]**

Hirigune Historikoaren eta udalerriko erdigunearen artean dagoenez, Merkatu Plazako eraikina azpiegitura estrategikoa da Durangoren etorkizunarentzat. Hura biziberritzea funtsezkoa izan daiteke udalerriko bizitza komertziala, soziala eta kulturala dinamizatzeko.

99. Merkatu Plaza birmoldatzeko prozesu bat garatzea, Durangoko eremuak lotzeko ardatz eta erakargune bihurtzeko.

100. Merkatu Plaza birmoldatzeko ideien lehiaketa bat bultzatzea, herritarrei faseetako batean parte hartzeko aukera emanez.

101. Zentroak eduki litzakeen eginkizun edo erabilerak aztertzea, hainbat eginkizun bateragarri egiten ahaleginduz:

    a. Bertako produktuaren jarduera indartzea, zerbitzu-jarduerarekin bateragarri eginez.

    b. Aisia-jardueretarako guneak gaitzea, gazteentzat (gaztegunea, txikigunea, etab.), kulturalak (auditoriuma, erakusketak, etab.) eta sozialak (txapelketak, lehiaketak, etab.).

102. Plazaren erabilerekin eta udalerriaren estrategiarekin lotutako jarduerak dinamizatzea: kirola eta euskal kultura, bizi osasungarriko ohiturak, elikadura osasungarria, garapen jasangarria, tokiko produkzioa, etab.

103. Plazaren irekiera eta aldameneko kaleetako jarduera bultzatzea.

104. "Elkartegi" kontzeptua merkatu-plazara estrapolatzea (postu iraunkorrak eta baserritarrenak barne), alokairu merkeak jarriz.

105. Plazaren dinamizazioaz eta bertan garatu beharreko jarduerez ardura hartzeko pertsona bat izendatzea edo erakunde bat sortzea, plaza udalerrira jarduera eta bisitaldiak erakartzeko eragile izan dadin.







**Urbanismo sostenible**

La forma en que se configuran los espacios físicos fomenta unas u otras actitudes, relaciones, actividades y desarrollos futuros. Durango es y quiere ser sostenible, para las personas que vivimos y trabajamos en ella, y para las generaciones que en el futuro vivirán y trabajarán en Durango. El lienzo donde debe tener lugar una vida de calidad y sostenible es el urbanismo.

106. Creación de un proyecto integral, un Modelo de Sostenibilidad – Smart City, que pivote sobre el proyecto de malla verde, la recuperación del antiguo trazado del ferrocarril y la generación de actividad económica en torno a la sostenibilidad y la calidad de vida.

107. Desarrollo de la malla verde de Durango:

    a. Plasmación normativa de la malla verde de Durango, de modo que sea respetada por todas las actuaciones urbanísticas, públicas y privadas.

    b. Impulso a las actuaciones necesarias para materializar la malla verde saludable, dotando al municipio de zonas verdes y espacios amables conectados mediante vías para peatones y ciclistas.

108. Impulso a la regeneración y aprovechamiento para el ocio del río Mañaria y convertirlo en el eje paisajístico de Durango.

109. Impulso a la convivencia de usos terciarios y de servicios con el uso residencial en el municipio, que hagan compatibles la generación de empleo de calidad y la calidad de vida de las personas.

110. Realización de un plan de trabajo para reordenar la ubicación de actividades industriales, potencialmente contaminantes, fuera de áreas residenciales.

111. Impulso al nuevo Plan General de Ordenación Urbana que de carta de naturaleza legal a este concepto de urbanismo sostenible.



**Hirigintza jasangarria**

Espazio fisikoak itxuratzeko moduak jarrera batzuk edo beste batzuk, harremanak, jarduerak eta etorkizuneko garapenak sustatzen ditu. Durango jasangarria da eta jasangarria izan nahi du, gaur egun bertan bizi eta lan egiten dugunontzat baina baita etorkizunean Durangon bizi eta lan egingo duten belaunaldientzat ere. Kalitatezko bizimodu jasangarria nahi badugu, hirigintzan eragin behar dugu.

106. Proiektu integral bat, Jasangarritasun Eredu bat sortzea —Smart City— honako hiru ardatz hauen gainean: sare berdeko proiektua, trenbide zaharra berreskuratzea, eta jasangarritasun eta bizi-kalitatearen inguruan jarduera ekonomikoa sortzea.

107. Durangoko sare berdea garatzea:

    a. Durangoko sare berdea arauetan jasotzea, hirigintza-jardun publiko eta pribatu guztiek errespeta dezaten.

    b. Sare berde osasungarria gauzatzeko behar diren jardunak bultzatzea, udalerria berdegune eta gune atseginez hornituz, eta gune horiek elkarri lotuz oinezko eta bizikletetarako bideen bitartez.

108. Mañaria ibaia leheneratu eta aisiarako aprobetxatzeko ekimena bultzatzea, Durangoko paisaiaren ardatz bihurtzeko.

109. Udalerrian hirugarren sektoreko eta zerbitzu-sektoreko erabilerak bizitegitarako erabilerekin uztartzeko aukera bultzatzea, kalitatezko enplegua sortzea eta pertsonen bizi-kalitatea bateragarri egiteko.

110. Kutsatzaile izan daitezkeen industria-jardueren kokapena bizitegitarako eremuetatik kanpo berrantolatzeko lan-plan bat egitea.

111. Hiri Antolamenduko Plan Orokor berri bat bultzatzea, hirigintza jasangarriko kontzeptu hori legeztatzeko.









**El espacio del ferrocarril** **[Proyecto estratégico]**

Por su ubicación central y oportunidades de desarrollo que se abren tras el soterramiento del tren y traslado de las cocheras a Lebario, el espacio liberado por el ferrocarril está llamado a ser el nuevo ensanche, conector del municipio y espacio de encuentro de Durango.

112. Conexión de la urbanización de esta zona con los proyectos de malla verde y recuperación del antiguo trazado del ferrocarril.
113. Impulso a un gran pulmón verde en el centro de Durango, con diversas zonas de arbolados, parque, instalaciones deportivas, instalaciones de ocio infantil, áreas de actividades biosaludables, etc.
114. Impulso a la cubrición de alguna zona de ocio infantil a desarrollar en este espacio.
115. Liderazgo interinstitucional para la supresión y acondicionamiento del antiguo vial ferroviario, y su eliminación total.
116. Creación de espacios de uso y disfrute público, atractivos para personas de todas las edades, que se conviertan en lugar de interrelación y convivencia.
117. Aprovechamiento del espacio liberado para impulsar o atraer nuevas actividades económicas.
118. Limpieza de los espacios destinados a inmuebles, e incluso impulso al uso público transitorio de los espacios destinados a inmuebles, en tanto en cuanto estos se desarrollan.
119. Creación de ejes peatonales y ciclables que conecten otros viales ahora aislados en el perímetro del antiguo trazado, de forma que se convierta en el conector del municipio.
120. Establecimiento de requisitos de diseño y sostenibilidad a la edificación en altura, de modo que se convierta en referente de urbanismo inteligente, conectado y sostenible, o Smart City.



**Trenbidearen espazioa** **[Proiektu estrategikoa]**

Kokapen zentrala duenez eta trena lurperatu eta kotxetegiak Lebariora eraman ondoren irekitzen diren garapen-aukerak direla medio, trenbideak aske utzitako espazioa zabalgune berria izango da, udalerriko lotunea eta Durangoko topagunea.

112. Eremuaren urbanizazioa sare berdeko eta trenbide zaharra berreskuratzeko proiektuekin lotzea.
113. Durangoko erdigunean birika berde handi bat bultzatzea, askotariko zuhaizti, parke, kirol-instalazio, haur-aisiarako gune, jarduera bioosasungarrietarako eremuekin, eta abar.
114. Espazio hau garatzerakoan, haur-aisiarako eremuren bat estaltzeko aukera bultzatzea.
115. Erakundearteko lidergoa trenbide zaharra kendu eta egokitzeko, eta guztiz desagerrarazteko.
116. Erabilera eta gozamen publikorako guneak sortzea, adin guztietako pertsonentzat erakargarriak, harremanetarako eta bizikidetzarako topagune bihurtuko direnak.
117. Aske utzitako espazioa jarduera ekonomiko berriak bultzatu edo erakartzeko aprobetxatzea.
118. Higiezinetarako espazioak garbitzea, eta higiezinetarako diren espazioetarako aldi baterako erabilera publikoa ere bultzatzea, haiek garatu ahala.
119. Oinezko eta bizikletetarako ardatzak sortzea une honetan trenbide zaharreko perimetroan isolatuta dauden beste bide batzuk lotzeko, eremu hori udalerriko lotune bihur dadin.
120. Gorakako eraikuntzarako diseinu- eta jasangarritasun-betekizunak ezartzea, hirigintza adimendun, konektatu eta jasangarriaren edo Smart Cityaren erreferente bihur dadin.



# Durango helburu



durango
helburu